



## II. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

## Basauriko Udala

**Basauriko Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Planari hasiera onespena ematea.**

Basauriko (Bizkaia) Elizate Prestuko Udalbatzak, 2024ko ekainaren 27an egindako ohiko bilkuran honako hau erabaki zuen:

*Lehena:* Basauriko Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Planari hasiera onespena ematea, LEBER Planificación e Ingeniería, S.A. merkataritzako enpresak aurkeztutako dokumentuaren arabera.

*Bigarrena:* Espedientea jendaurrean jartzea berrogeita bost egunez, «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» eta udalaren webgunean iragarki bat argitaratuta. Iragarki hori aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen epea.

Epe horretan, interesdun orok aztertu ahal izango du espedientea Basauriko Udalaren webgunean (<https://www.basauri.eus>) eta, aurrez aurre, Udaletxeko (Kareaga Goi-koa z/g) 3. solairuan, eta egoki iritzitako erreklamazio, alegazio edo iradokizunak aurkeztu ahal izango ditu.

*Hirugarrena:* Jendaurrean egoteko epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztzen ez bada, erabaki hau behin betiko hartutzat joko da, eta alkate-udalburuari ahalmena emango zaio, berariaz, erabakia betearazteko.

*Laugarrena:* Bizkaiko Foru Aldundiari txostena eskatzea, 11/2023 Legearen (11/2023 Legea, azaroaren 9koa, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriarena) 16. artikuluen arabera, Lurralde Historikoko Mugikortasun Jasangarriko Planarekiko adostasunari buruz.

Basaurin, 2024ko uztailaren 5ean. — Alkatea